

Bilbobuseko langileek greba mugagabearekin jarraituko dute

AGENTZIAK/LA HAINE :: 21/05/2024

Biobide enpresak eta UGT, CCOO eta USO sindikatuek aste honetan bertan lortutako aurreakordioa baztertzea erabaki dute langileek batzarrean.

Bilbobuseko langileek ezetz esan diote aste honetan bertan Biobide enpresak eta UGT, CCOO eta USO sindikatuek lortutako aurreakordioari. Hori dela eta, greba mugagabearekin jarraituko dute. Asteartean bertan behera geratu zen behin behinean, aurreakordioa azaldu eta bozkatu ondoren. Aurreakordioak 2027ra arteko indarraldia ezartzen zuen, eta 2025, 2026 eta 2027rako soldata-igoera Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioko langileek urte horietan izango duten igoeraren arabera izatea. Langileek kritikatu dute urteko KPIaren arabera soldata-igoerarik ez jasotzea eta erreferentzia funtzio publikoaren soldata-igoeraren arabera izatea. Langileen ezezkoa jakin ondoren, zerbitzua ematen duen Biobide enpresak "gutxieneko zerbitzuen % 30arekin" jarraitzea erabaki du.

Bestalde, Bilboko Auzo Elkarteen Federazioak elkartasuna adierazi die Bilbobuseko langileei, eta hitzarmen kolektibo "justua" lortzeko egite ari diren grebaren alde daudela adierazi die. Aldi berean, "bitartekaririk gabeko" zerbitzu bat eskatu dute, Udalak zuzenean kudeatu.

Bilboko bizilagunen mugimenduak ohar batean adierazi duenez, udal gobernuak "ezin ditu eskuak garbitu Bilboko herritarren zati handi bati eta langileei eragiten dien zerbitzu publiko baten lan-gatazkaren aurrean". Udal gobernuak "duela bi urtetik egoera honen jakitun" izan dela ziurtatu du, baina salatu du ez duela aurrea hartu "konponbide bideragarriak bilatzeko eta, horrela, greba amaitutzat eman eta zerbitzua berrezartzeko". Amaitzeko, dei egin du maiatzaren 23an Zabalburu plazatik abiatuta egingo den manifestazioan parte hartzeko, "beharrezkoa den lineen berregituraketa eta Bilbobus Udalak zuzenean kudea dezan eskatzeko, bitarteko enpresarik gabe".

<https://eh.lahaine.org/bilbobuseko-langileek-greba-mugagabearekin-jarraituko>